



AMATASUNA ETA AITATASUNA ERE LAN ESKUBIDEAK DIRA

2008. URTEKO LEHEN SEIHILEKOAN, 320.000 GURASOK ESKATU DUTE LAN BAIMENA ESPAINIAN: 180.000K AMATASUN BAIMENA, ETA 140.000K AITATASUN BAIMENA

Amatasun eta aitatasun laguntzak eta eskubideak

P

ediatrak, erizainak eta haur hezitzaileak ez zaizkio mintzo amari soilik. Jaioberriaren aita ere hantxe daukate, urteetan hutsik egon den aulkian jarrita. Lege erreformei esker, hein handian, haurra jaio eta lehen asteetan, behintzat, amak eta aitak lagunduta joan daiteke profesional horien gana, aita direnek ere eskubidea baitute orain lan baimena eskatzeko. Familiaren ardurak oraindik ere ez dira berdin banatzen emakumeen eta gizonen artean –oso urrun gaude horretatik-, baina Espainian 3/2007 Lege Organikoa onartu zutenetik, Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako berdintasunerako legea, bi gurasoek dute eskubidea denbora batez lan egiteari utzi ahal izateko; soldata osoa jasotzen jarraituko dute (dagokion oinarri arautzailearen arabera), eta lanpostua gordeko diete, baimena bukatzean berriz itzul dadin.

Amatasun edo aitatasun baimena bukatu ondoren, bi gurasoetako edozeinek eska dezake edoskitze baimena (egunean ordu bat izango luke), lan utzialdia (haurrak 3 urte bete arte) edo lanaldi murrizketa (haurrak sei urte baino gutxiago baditu). 2008. urteko lehen seihilekoan, ia 320.000 baimen eman ditu Gizarte Segurantzako Espainiako Institutu Nazionalak; 180.333 amatasun baimenak izan dira, eta 139.483 aitatasun baimenak. Guztira, guraso horiei dagozkien laguntzak emateko, 929 milioi euro erabili ditu (825 milioi ama izan direnentzat eta 104 milioi aitentzat). Ekainaren 30a bitarte, gainera, 20.865 gurasok eskatu dute lan egiteari uzteko baimena haurrak zaintzeko (19.307 emakumek eta 1.558 gizonek).

Hala ere, bide luzea geratzen da oraindik lana eta familia bateratzeko. Espainian, 16 asteko amatasun baimena onartzen du legeak, eta Mercer Human Resource aholkularitza enpresak hirurogei herrialdetan egin duen azterketak dioenez, zortzigarren lekuan egongo litzateke European. Suedia dago guztien buru (96 aste onartzen ditu legeak), eta Norvegia dator haren ondotik (52 aste). Azken tokian, berriz, Portugal geratu da (12 asteko baimena soilik ematen dute han).



Lana eta Familia Bateratzeko Diru Laguntzak

Nafarroako Unibertsitateko Negozio Eskolak (IESE) lana eta familia bateratzeko politiken inguruko ikerketa egina du, IFREI 2006 izenekoa (Familia Aintzat Hartzen duten Enpresen Datuak), eta hor agertzen da Espainiako enpresetan zer neurri hartu dituzten bateratze hori gauzatu ahal izateko. Datuek erakusten dutenez, enpresen % 7k soilik hartzen dituzte aintzat familiak, % 17k soilik ulertzen dute langileek familiari lehenetsua eman nahi izatea, eta % 40tan konpromiso gutxiago duen langileetat jotzen da bateratze neurriak erabiltzen dituenak. Datu horiek ikusita, argi dago zein den emakumeen lan arriskurik handiena: haurdun geratzea. Oztopo handia bihurtzen da hori emakumeek beren lan ibilbidean aurrera egin ahal izateko, batik bat, sektore pribatuan ari direnentzat (% 33k hala diote) eta autonomo direnentzat (% 32,5). Funtzionarioen artean, gutxiagori baldintzatu die haurdunaldiak lan ibilbidea (% 23). Datu horiek ageri dira Laneko Bizi Kalitatearen Ikerketan (Espainiako Lan Ministerioak egina da).

AMATASUN BAIMENA, AMAREN ETA HAURRAREN ESKUBIDEA

Lan egiten duen emakume orok, bai bere kontura ari bada edo bai besteren kontura, eskubidea du haurra eduki eta amatasun baimena hartzeko, atsedean hartu eta haurra zaindu ahal izateko. Espainian 16 astekoa izaten da, eta soldata osoa ematen diote amari. Haur batez baino gehiagoz erditu bada aldi berean, bigarreneetik hasita, bi aste gehiago izango ditu haur bakoitzeko, eta haurra ezintasunen batekin jaio bada, orduan ere bi aste izango ditu. Eskubide hori ez daukate erditu direnek soilik. Haur bat adoptatu dutenek edo harreraren hartu dutenek ere badute eskubidea, bai aldi baterako egin dutenek, bai modu iraunkorren egin dutenek, baldin eta haurrak sei urte baino gutxiago baditu.

Hamasei aste horietatik, lehen seiak amari soilik dagozkio, derrigorrezkoa zaion atsedena har dezan. Hurrengo hamarrek, berriz, amaren eta aitaren artean har ditzakete, nahi badute biek aldi berean, nahi badute txandaka, baina beti hamar aste bien artean, ez bakoitzak hamar aste. Ama enpresarekin ados jarriko balitz, lanaldi erdia hartu eta 20 astera luzatu ahal izango luke.

Bi gurasoetako bat baimenarekin dagoela besteak lanean hastea erabakiko balu dagozkion egun guztiak hartu gabe, aukera du bikotekideari uzteko egun horiek. Urte honen lehen erdian eman dituzten baimen guztiak aintzat hartuta, 2.687 kasutan, aitaren esku

Egoera hola dagoela ikusita, autonomia erkidego asko diru laguntzak ematen hasi dira langileek lana aldi batez utzi ahal izan dezaten edo lanaldia murriztu haurrak zaintzeko. Lana eta familia bateratzeko bide zailean urratsak egin ahal izatea dute helburu laguntza horiek, eta Nafarroan, Balearretan, Gaztela eta Leonen eta Euskal Autonomia Erkidegoan, adibidez, hasiak dira ematen. Urtean 1.200 eurotik 8.700 euro bitartekoak izaten dira laguntzak, eta zenbaitetan, diskriminazio positiboa erabiliz, gizonentzat diru gehiago ematen dute, haiek ere haurrak zaintzeko ardura hartu eta pausoa eman dezaten.

Euskal Autonomia Erkidegoan, aitak uzten badio aldi batez lan egiteari, 3.000 euro jasoko ditu urtean, eta amak uzten badio, berriz, 2.400. Lan egiteari utzi beharrean lanaldia murrizten badute, amak 1.350 eta 1.800 euro bitartean jasoko ditu, eta aitak, 1.800 eta 2.400 bitartean. Lanaldia zenbat murriztu den, laguntza ere halakoa izango da gurasoentzat.

utzi du amak eskubide hori (2007. urtean baino % 2,5 handiagoa da kopurua).

Laguntzak jasotzeko eskubide hori edukitzeko, ordea, bi baldintza hauetako bat bete behar dute emakumeek: Gizarte Segurantzaren izena emana egon behar dute, gutxienez, erditu baino bederatzita hilabete lehenagotik, edo, bestela, erditu aurreko bost urteetan, gutxienez 180 egunez kotizatu behar izan dute Gizarte Segurantzaren. Baldintza horietako bat bete ezean, eskubidea izango dute, bai, kontratua 16 astez eten diezaizaten, baina laguntza, aldiz, 42 egun dagokiena soilik jasoko dute, erditu diren egunetik hasita.

GIZONEI ERE BADAGOKIE HAURRAK ZAINTZEA

Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik, gizonen ere eskubidea dute legez baimena eskatu eta bikotekidearekin batera etxeko txikia zaintzeko. Hamahiru egun jarraian hartzeko aukera ematen die legeak, eta, agian, bere lan hitzarmenak besteren bat hartzeko modua emango dio guraso egiteagatik. Haur bat baino gehiago jaio badira erditze berean, egun gehiago hartu ahal izango ditu aitak, eta berdin gertatzen da haur bat baino gehiago adoptatu edo harreraren hartu badituzte aldi berean: bi egun gehiago izango ditu aitak haur bakoitzeko, bigarreneetik hasita. Baimena eta lanaldi erdia txandakatu nahi balitu, ados jarri beharko luke enpresarekin.

Gaztela eta Leongo laguntzak 3.000 eurokoak dira amarentzat eta aitarentzat, lanaldia gutxienez % 50 murriztuz gero. Lana aldi batez uzteagatik, 7.000 euroko laguntza jasoko dute guztiek, eta 8.700 eurokoa familia ugariak, guraso bakarrekoeak, aldi berean haur bat baino gehiago eduki dutenek, eta haur bat adoptatu dutenek. Galiziako Xuntak laguntza berezia ematen die gizonen eta guraso bakarreko familiei: 2.400 euro eta 3.600 artean jasoko ditu bakoitzak lanaldia murrizteagatik; zenbat murrizten duten lanaldia, eta zenbat denborarako –zortzi hilabeteko baimena izaten da, gehienez-, horren arabera izango da laguntza. Balearretako Gobernuak, berriz, 145 eta 175 euro artean ematen dizkie hilean haurrak zaintzeko lanaldia murriztu duten langileei. Eta Nafarroako Gobernuak hilean 417 euro ematen dizkie gurasoei, baldin eta biek lanean ari badira eta batek lan egiteari uzten badio aldi batez haurra zaintzeko. Laguntza horiek guztiak jasotzeko, ordea, erakunde bakoitzak ezartzen dituen baldintzak bete beharra dago.

Horretaz gain, Gizarte Segurantzak onartu du aitak amatasun laguntza jaso ahal izatea, ama hilko balitz. Honako hau esaten du erabaki horrek: “Erditzeko garaian edo ondoren ama hilko balitz, beste gurasoak izango du laguntza jasotzeko eskubidea, baldin eta eskatutako betebeharrak biltzen baditu, nahiz eta ama zena Gizarte Segurantzaren sisteman sartuta egon ez”.

SUEDIAN 96 ASTE DITU AMATASUN BAIMENAK ETA ESPAINIAN, BERRIZ, 16

Beren kontura eta besteren kontura lan egiten dutenek daukate horretarako eskubidea eta amatasun baimena hartzeko, eta prestakuntza aldirako kontratatuta daudenek eta aldi baterako kontratua dutenek ere bai, nahiz eta azken horiek baldintza hau bete behar duten: baimena hasten den eguna baino lehenago, 180 egun kotizatuta eduki beharko dituzte Gizarte Segurantzaren azken zazpi urteetan, edo, bestela, lan bitzita osoan 360 egun. Amatasunagatik edo aitasunagatik jasotzen den laguntza zenbatekoa izango den, norberari dagokion oinarri arautzailearen arabera izaten da, baina betiere oinarri arautzaile horren % 100 jasoko du gurasoak. Aita langabezia egongo balitz, aitasun baimenari dagokion denbora ez litzaioke kenduko langabezi sariari.

EDOSKITZE BAIMENA

Guraso langileek badute beste eskubide bat ere: laneatik atera daitezke beren haurrari bularra emateko edo biberioa bestela, baldin eta bederatzita hilabete baino gutxiago baditu. Bi gurasoek dute horretarako eskubidea, eta batak zein besteak har dezake baimena (soldatan ez dute izango inolako murrizketarik), baina ama langile autonomoa bada, aitak ezingo du baimen hori eskatu, haren lan hitzarmenak kontraktorik esaten ez badu, behintzat.

Gainera, edoskitze baimena eskatzen duen gurasoa langile autonomoa bada, 20/2007 Legeak, Lan Autonomoaren Estatutuari buruzkoak, baldintza hauxe jartzen dio lanaldia eteteko eskubidea izan dezan: arrisku egoera egon behar du edoskitze naturalaren garaian. Haurraren edoskitzeko gaitasuna gutxitu dezaketen lan baldintzak hartzen ditu legeak arriskutzat, eta amari esnea moztu diezaioketenak (nekea, estresa, ingurumen baldintzak, eta abar); haurraren osasuna arriskuan jar dezaketen gai kutsakorrek ere arrisku itu- >

rrien artean sartzen ditu (produktu toxikoak, ionizazio irradak, eta abar).

Lanetik ordubetez ateratzeko eskubidea dute amak eta aitak; haur bat baino gehiago jaio badira, modu proportzionalan handituko da denbora hori, eta aukera izango dute, gainera, bitan zatitzeko. Legeak onartzen dio aitari, ordubeteko etena egin beharrez, lanaldia ordu erdi laburtzea –edo lan hitzarmenak onartzen duen neurrian-, edo ordu horiek pilatu eta lan egun batzuk huts egitea, lan hitzarmenak jasotzen dituen baldintzetan edo enpresaburuarekin hitzartu ditzakeenatan.

LAN UTZIALDIA EDO ESZEDENTZIA

Langileen Estatutuko 46.3 artikulua esaten duen bezala, langileek hiru urtez utz diezaiokete gehienez ere lan egiteari haien seme-alabak zaintzeko, bai naturalak eta bai adoptatuak edo harreran hartuak (iraunkorki edo adopzio-aurreko aldia). Haurra jaio den egunetik aurrera hasten da kontatzen, eta adopzio eta harrera kasuetan, auzitegiek edo administrazioak erabakia hartzen duenetik. Haurrak hiru urte betetzen dituen arte, noiznahi har daiteke lan utzialdia, ez da zertan hartu haurra jaiotakoan bertan. Legeak dio langile bakoitzaren eskubidea dela hau, izan emakume edo izan gizon, eta, beraz, bi gurasoetako edozeinek eska dezake, bikotekidearen lan egoera dena dela ere. Beste haur bat jaioko balitz, hura zaindu beharrez ere eskubidea ematen dio langileari beste lan utzialdi bat eskatzeko, eta horrek baliorik gabe utziko luke aurreko eszedentzia, nahiz eta oraindik ez bukatu.

Espainiako Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak eman dituen arabera, 34.826 lagunek utzi zioten lan egiteari Espainian 2007. urtean haurrak zaindu ahal izateko (33.335 emakumek eta 1.482 gizonek). 2005. urtetik 2007. urtera, % 21 handitu zen kopurua (gizonetan, % 3,3tik % 4,3ra igo zen). Hainbat arrazoi egon daitezke kopuru orokorrak hainbeste igo izateko: emakumeak lanpostu hobeak lortzeko aukerak eskuratu izana; gizonen lanen aldean, emakumeenak behin-behinekoagoak izatea, baldintza kaskarragoak eta okerrago ordainduak; amatasun berantiarra –bizitza pertsonala lanaren aurretik jarri ahal izatea–; edo Berdintasun arloan legeak ekarri dituen hobekuntzak (lanpostua gorde ahal izatea, edo lanari uzten dion aldia ere kotizazio alditzat hartzea).

LANALDI MURRIZKETA

Sei urtetik beherako haurrak dituzten gurasoek lanaldi murrizketa eska dezakete haurrak zaindu ahal izateko (lanaldi herena edo erdia murrizteko aukera dute). Lan legediak, gainera, onartzen du guraso batek lanaldi murrizketa hartzea eta besteak edoskitze baimena, biek aldi berean. Lan ordutegia finkatzea eta lan murrizketak zenbat iraungo duen zehaztea ere gurasoek erabakitzen dute. Eszedentzia eskubidearekin gertatzen den bezala, lan murrizketa ere bi gurasoetako edozeinek eska dezake, bikotekidearen lan egoera dena dela ere. Lan murrizketa eskatzen duenari, ordea, soldata ere murrizten diote, bai soldata oinarria, bai lan sariak biltzen dituen bestelako osagarriak, eta bai Gizarte Segurantzari ordaintzen zaizkionak. //



Langile autonomoak

Bi gurasoetako bat autonomoa bada, eta berari dagokion baimena bikotekideari utzi nahi badio –besteren kontura ari behar du lanean-, Gizarte Segurantzaren bulegoetara jo behar du, eta baimena utzi ahal izateko dokumentuak eskatu beharko ditu, eta han emango dizkieten paper guztiak bete. Hori eginda, laguntza jasotzeko eskubidea izango dute, eta Erregimen Orokorreko langileei ematen dizkieten laguntza berberak emango dizkiete, iraupen berarekin eta baldintza beretan.

Guraso autonomoek, gainera, eskubidea dute % 100ean jasotzeko haien oinarri arautzaileari dagokion kopurua, Erregimen Orokorreko langileek jasotzen duten bezala, iraupen eta baldintza berberekin. Horretarako, langileak adierazpen bat aurkeztu behar du Gizarte Segurantzako Espainiako Institutu Nazionalean, inprimaki ofizial bat beteta (bere saltokiari, industria lantegiari edo beste zeinahi jarduerari buruzko datuak bete beharko ditu langileak). Baimena hartu eta hurrengo hamabost egunen barruan egin beharko du eskabide hori.